



## Ibon Sarasola

(Donostia, 1946 - )

### 1. Biografía <sup>1</sup>

Euskalgintzaren munduan aurkezpen gutxi behar duen gizona da Ibon Sarasola (Donostia, 1946). Ingenieritza eta Filosofia eta Letrak ikasitakoa, hizkuntzalaritzan eginiko lanarengatik nabarmendu da. 1988an Euskaltzain Oso izendatu zuten. Euskaltzaindiako Hiztegitzako batzordeko buru da, eta Euskara Batuko batzordeko kide. Euskal Filologia irakaslea izan zen 1987tik 1999ra Bartzelonako Unibertsitatean, eta 1998az geroztik Euskal Filologian katedraduna da eta EHUko Euskara Institutuan egiten du lan.

Lan ugari argitaratu ditu Sarasolak bere ibilbidean, era askotarikoak gainera: literaturari buruzko saiakera, poesia... Bere lanik mardulenak eta agian ezagunenak, ordea, hiztegitzantz egin ditu. Horien artean daude: *Poemagintza* (1969), *Euskal literaturaren historia* (1971), *Joan eta Ane zigarro bat erretzen* (1977), *Sobre la bipartición inicial en el análisis de constituyentes* (1977), *Contribución al estudio de textos antiguos vascos* (1990) eta *Euskara batuaren ajeak* (1997).

Itzulpenak ere egin ditu: Voltaireren *Kandido* eta Gideren *Teseu*, besteak beste. Bereziki hizkuntzalaritza eta, hain zuzen, hiztegitzantz alorra landu du; *Hauta lanerako euskal hiztegia* (Kutxa). *Erdara-euskara oinarrizko hiztegia* (Vox), eta *Hiztegi handia* (Vox) gero. *Orotariko euskal hiztegiaren* zuzendaria da, 1970ean Koldo Mitxelena ekindako lanari amaiera emanez. “*Ereduzko prosa gaur*” (2003) arakatzaileren zuzendaria ere bada.



## 2. Zehazki hiztegia <sup>2</sup>



Hamar urte eman ditu Ibon Sarasola euskaltzainak *Zehazki Hiztegia* prestatzen. Izan ere, hauxe liteke gaztelania-euskara formatuan orain arte plazaratu den hiztegirik osatuena. Alberdaniak argitaratu du, BBVA fundazioaren laguntzarekin. Euskaldun berriek zein idazle eta itzultzaile profesionalak erabiltzeko egokia da.

*Zehazki Hiztegia* Ibon Sarasola hizkuntzalari eta euskaltzainaren azkeneko lana da, Alberdaniak argitaratu duen 939 orriko liburu mardula. Bere orrietan 100.000 sarrera onuzen ditu. Hiztegia egiteko hamar urte behar izan ditu Sarasolak eta horretarako kontuan hartu ditu Koldo Mitxelenak hasitako eta Sarasolak berak oraintsu bukatutako *Orotariko euskal hiztegia* eta *Elhuyar hiztegia*. Beste iturriak Placido Mujikaren hiztegia eta EHUK eta Donostiako Udalak sarean jarri duten *'Ereduzko prosa gaur'* ataria izan dira.

Emaitza, proposamen eta adibide zehatzak ematen dituen hiztegia da. Hitz eta esapideen inguruko informazioa zabal ematen du, esanahiak zerrendatuz eta adibideak emanez. 'Ahalik eta gehiena zehazten ditu hitz bakoitzak izan ditzakeen erabilera guztiak', aurkezpenean Pello Salaburu euskaltzainak azpimarratu zuenez.

Zehazki Hiztegia gaztelaniaz ondo dakiten erabiltzaileentzat prestatutako lana da, gaztelaniazko hitz eta esamoldeen euskarazko itzulpenak soilik jasotzen dituelako. Ez dago euskaratik gaztelaniara eginiko itzulpenen atalik. 'Euskal ondarea gaztelania-euskara formatuan jartzen duen hiztegia da hau', argitu du Sarasolak.

## 3. Ibon Sarasolaren obra <sup>3</sup>

Poemagintza (1969)

Euskal hiztegi arauemailea:(bigarren zatia) (196?)

Euskal literaturaren historia (1971)

Gerra ondoko euskal poesiaren antologia (1945-1964)(1973)

Txillardegia eta Saizarbitoriaren nobelagintza (1975)

Euskal literatura numerotan (1975)



**Joan eta Ane zigarro bat erretzen (1977)**  
**Euskal literaturaren gidaliburua (1977)**  
**Sobre la bipartición inicial en el análisis de constituyentes (1977)**  
**Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegia (1982)**  
**Hauta lanerako euskal hiztegia (1984-1995)**  
**Orotariko euskal hiztegia (1987)**  
**Contribución al estudio de textos antiguos vascos (1990)**  
**Euskal hiztegia (1996)**  
**Euskara batuaren ajeak (1997)**  
**Erdara-euskara oinarrizko hiztegia (1999)**  
**Zehazki hiztegia (2005)**

#### **4. Ibon Sarasolaren obra Donostiako Udal Liburutegien Sarean <sup>4</sup>**

**Zehazki : gaztelania-euskara hiztegia = diccionario castellano-euskera.** 809.169 SAR [Amara, Intxaurren Berri, Altza, Loiola, Gros, Egia, Antiguoa, Nagusia / Central, Larratxo, Intxaurren Berri]  
**Euskal hiztegia.** CDR 809.169 SAR [Nagusia / Central, Intxaurren Berri]  
**Oinarrizko hiztegia : euskara - gaztelania, castellano-euskara.** I-809.169 OIN [Amara, Larratxo]  
**Txillardegia eta Saizarbitoriaren nobelagintza : (irakurlearentzat gidaria).** II 65-3 34 [Nagusia / Central]  
**Hauta-lanerako euskal hiztegia: tolesgabe – zuztartu.** 030=916.9 TOLESGABE-ZUZTARTU [San Telmo] eta V 7614 [Nagusia / Central]  
**Joan eta Ane zigarro bat erretzen.** N SAR [Nagusia / Central, Altza, Gros, Antiguoa]  
**Historia social de la literatura vasca.** 891.69.09 SAR [Nagusia / Central, Egia]  
**Gerraondoko euskal poesian antologia (1945-1964).** E-1 GER [Nagusia / Central]  
**Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegia = Diccionario de frecuencias del euskera escrito actual = Dictionary of frequency in the written basque language at present : 1977ko corpus batean oinarritua.** II 60-1 25 [Nagusia / Central]  
**Euskara ikaslearen hiztegia.** 809.169 SAR [Amara, Egia, Intxaurren Berri]  
**Euskara batuaren ajeak : saiakera.** 809.169 SAR [Nagusia / Central, Amara, Altza, Loiola, Gros, Egia, Antiguoa]  
**Euskal literaturaren historia.** II 65-3 38 [Nagusia / Central]  
**Euskal literatura numerotan.** 891.69.09 SAR [Nagusia / Central, Altza]  
**Euskal hiztegia.** 809.169 SAR [Loiola, Nagusia / Central, Intxaurren Berri, Altza, Gros, Antiguoa]  
**Euskal hiztegi arauemailea : (bigarren zatia).** II 60-1 24[Nagusia / Central]



## 5. Ibon Sarasola Interneten

< [http://images.google.es/imgres?imgurl=http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/pg051204/prensa/fotos/200512/04/118D7VIZ001\\_1.jpg&imgrefurl=http://www.elcorreodigital.com/alava/pg051204/prensa/noticias/Cultura\\_VIZ/200512/04/VIZ-CUL-000.html&h=210&w=135&sz=7&tbnid=KXxW6LVw1UFetM:&tbnh=100&tbnw=64&hl=es&start=11&prev=/images%3Fq%3Dibon%2Bsarasola%26svnum%3D10%26hl%3Des%26lr%3D](http://images.google.es/imgres?imgurl=http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/pg051204/prensa/fotos/200512/04/118D7VIZ001_1.jpg&imgrefurl=http://www.elcorreodigital.com/alava/pg051204/prensa/noticias/Cultura_VIZ/200512/04/VIZ-CUL-000.html&h=210&w=135&sz=7&tbnid=KXxW6LVw1UFetM:&tbnh=100&tbnw=64&hl=es&start=11&prev=/images%3Fq%3Dibon%2Bsarasola%26svnum%3D10%26hl%3Des%26lr%3D) > [Kontsulta: 2005-01-27]  
< [http://www.argia.com/cgi-bin-ka-on/HTMODFOR?ActionField=getmodel&\\$BaseNumber=08&\\$Publ=1931&\\$Fitxa=21152&CmdGetModel=KAPSULA.HTMLMOD.ONMODART](http://www.argia.com/cgi-bin-ka-on/HTMODFOR?ActionField=getmodel&$BaseNumber=08&$Publ=1931&$Fitxa=21152&CmdGetModel=KAPSULA.HTMLMOD.ONMODART) > [Kontsulta: 2005-01-27]  
< [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1048499005](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1048499005) > [Kontsulta: 2005-02-07]  
< <http://antonpirulero.bitacoras.com/archivos/2005/12/04/ibon-sarasola-lexicografo> > [Kontsulta: 2005-02-07]

---

## Iturriak

- <sup>1</sup> <http://www.uztarria.com/albistiek/1131354961>
- <sup>1</sup> [http://www.erabili.com/zer\\_berri/aurkibidea/egilea/sarasola](http://www.erabili.com/zer_berri/aurkibidea/egilea/sarasola)
- <sup>2</sup> <http://www.euskalkultura.com/index.php?artiid=3996&PHPSESSID=cdf9ced9d1dfe4d2feafef739edae919>
- <sup>3</sup> [http://www.idazleak.org/cgi-bin-eie/HTMODFOR?ActionField=getmodel&\\$BaseNumber=01&\\$NumFitxa=+++++++224&\\$CmdGetModel=KAPSULA/HTMLMOD/EIMODIBI](http://www.idazleak.org/cgi-bin-eie/HTMODFOR?ActionField=getmodel&$BaseNumber=01&$NumFitxa=+++++++224&$CmdGetModel=KAPSULA/HTMLMOD/EIMODIBI)
- <sup>4</sup> <http://librivision.donostia.org/opac.html>
- <sup>5</sup> <http://librivision.donostia.org/opac.html>